



Agirrezabala: «2004an nuen ilusioa berreskuratu nahi dut»

ANOETA ▶ Nicolas Mateos
mugiezin enpresak bultzatutako
taldeak urtebeterako fitxatu du ▶ 4



Saunier Duval-en beheko taldean ariko da Joseba Agirrezabala. KARLOS



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Asteburua musikaz blai Bonberenean

TOLOSA ▶ Lehendakaris muertos, Ezinean, The Solanos eta Zizateh
taldeen kontzertuak, gaur eta bihar; 6. urteurrena, ate joka ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Finalerako txartelaren bila lehiatuko dira bihar Agirre, Mendiluze eta Irazu bertsolariak

Txapelketa Nagusiko finalaurrekoen bigarren itzuliari
ekingo diote eskualdeko hirurek; orain arte egindakoa,
finala eta faboritoak izan dituzte, besteak beste, hizpide ▶ 5

LEITZA ▶

Diskoteka ttikia izanen da haurrentzat

Bihar arratsaldean,
pilotalekuan ▶ 7

ZIZURKIL ▶

Haimar Zubeldia omenduko du gaur Urkamendi elkarteak

Tourreko lehen euskalduna
izateagatik jasoko du aipamena ▶ 3

Deusake
943 67 24 48
686 971 962

HIZKUNTZAK

- Helburuzko eta lanfuntziozko ikasketak: INGELERA, Castellano eta NED-ko alfabeterako prestakuntza, etab.
- FRANTSESA • ALEMANA • ARABIERA • EUSKARA
- GREKERA • ITALIERA • Gaztelania atzerriarrentzat
- Japoniera • Holandesa

ERREFORTZU KLASEAK

- BIATERRAK • DISKOLAK
- PERUA • KUBAKA

ITZULPENAK

- INGELERA • ARABIERA • BIATERRAK • ITALIERA • ARABARRI (bereziki atzerriarrentzat)

TALDE TXIKIAK

- Arreta PERTSONALIZATUA eta berezia
- LOGOPEDA zerbitzua • Hezikuntza berezia

MAILA GUZTIAK

MUSIKA ▶

6. urteurrena ate joka eta musika doinuek aurrera Bonberenean

Gaur Lehendakaris muertos eta Ezinean taldeak ariko dira; bihar, berriz, The Solanos eta Zizateh, 22:30etik aurrera

NOELIA LATABURU

Asteburu berri baten ataria heldu da beste aste batez, eta Bonberenean ez dute salbuespenik egiten. Hori dela eta, gaur eta bihar bitarte berriz ere beste lau emanaldi taularatu dituzte. Lehen txandan, gaur, 22:30ean, Lehendakaris muertos eta Ezinean taldeak ariko dira. Bigarren berriz, bihar, ordu berean, The Solanos eta Zizateh taldeen kontzertuak izango dira entzungai. The Solanos taldeak, gainera, bere azken lana aurkeztuko du, urriaren 27an kaleratu zutena. Xabi Solanok (ahotsa eta trikitixa), Oskar Benak (kitarra) —biak ere Fermin Muguruza-ekin ibiliak direnak; lehenak Kontrabandaren Komunikazioa Tourrean eta bigarrenak Fermin Muguruza Dub Manifest taldearekin—, Sergiok (Joxe Ripiau taldeko baterijolea), Egoitzek baxuan eta Sazarrek perkusio eta koroetan osatzen dute boskotea. «Punk izpiritua, sustraia eta dantza lau haizeetara» nagusi dute taldekideek haien doinuean.

Bonbereneako eszenatokia, bestalde, festa kolorez jantzikoa da datorren astean; izan ere bere 6. urteurrenaren ospakizunei hasiera emango diete



Lehendakaris muertos taldeak gaur joko du, 22:30ean. HITZA

etxekoek. Abenduaren 1ean hasi eta hilabete guztian zehar askotariko ekitaldiak prestatu dituzte: Bonbereneako Txaranga diskaren aurkezpena, bideo proiektzioak, kontzertuak (Angelays, Peachy, Joke, Eko 4, Lor, Biok), antzerkiak, eskalada txapelketak, zine-kluba, bazkari herrikoia eta hitzaldiak, besteak beste.

Abenduaren 10a, esaterako, egun berezia izango da; arratsaldetik hasiko da jaia, eta gauean Berri Txarrak talde nafarrak bisitatuko du Bonberenean, bere azken diskoaren aurkezpena egiteko, *Jaiomusika.hil*. Ez dute aspertzeko aitzakiarik ez eta betarik izango, bada, gainean dugun hil berri honetan.

ERLIJIOA ▶

Santa Mariako kapera, Santa Zeziliaren omenez

Santa Zeziliako eguna ospatzeko, bihar, 19:00etako mezan, Santa Mariako kapera, koroa eta orkestra, izango dira. *Santa Zeziliako Motetea* eta *Magnificat* obrak interpretatuko ditu koroak; orkestrak, bere aldetik, Juan Sebastian Bach-en garota bat joko du, bakarrik ariko delarik. Hildako partaide guztien oroimenez izango da biharko meza hau eta, bereziki, Antonio Zuaregiren omenez, orain dela gutxi hildakoa, hain zuzen ere.

POLITIKA ▶

Batasunaren bigarren batzarra, bihar

Batasunak Bide Eginez prozesuaren batzarrekin hasi zen azaroan. Orain, bigarren batzarren deialdia luzatu nahi izan du. Gai berbera ardatz izango duen batzarra bihar egingo dute, Tolosako Kultur Etxean, 10:30ean. Aurrera begirako ildo politikoa zehaztuko dute bertan. Lehendabiziko batzarra joandakoei, bai eta jende guztiari ere, parte hartzeko gonbita egiteko ere baliatu nahi izan dute deialdia.

KULTURA ▶

Udaberri dantza taldearen bilera, astelehenean

Udaberri dantza taldeak bere 50. urteurrenaren presaketa lanetan dihardu azken egunotan. Hori dela eta, hainbat bilera ari dira antolatzen. Hurrengo astelehen honetan izango dute, 20:30etik aurrera, hain zuzen ere. Bilera dantza taldeak lgarondo ondoan duen lokalean gauzatuko dute, eta partaide guztiei bertara joan daitezela eskatu diete.

ERLIJIOA ▶

Otoitzaldia bihar Santa Maria parrokiari

Santa Maria parrokiako arduradunek jakitera eman dutenaren arabera, bihar erretiroa egingo dute, Santa Zezilia egunaren harira. Otoitzaldi hau 10:30etik aurrera garatuko da Santa Maria parrokiari bertan. Deialdia herritar guztientza irekia da, batik batik pastoralgileentzat izango delarik. Bertan jorratuko diren gaiak, gainera, euskaraz landuko dituzte. Parrokiatik jende guztia parte hartzera gonbidatu nahi izan dute.

GIZARTEA ▶

Gabonetako loteria eskura, Gure Txokoa

2005eko Eguberriak gainean ditugun honetan, Gure Txokoa elkartek dei berezi bat luzatu nahi izan die elkarteko bazkide guztiei: aurtengo Gabonetako Loteria dagoneko eskuragarri jarri dute, elkartean bertan. Beraz, erosi nahi duenak aukera izango du Gabonak bitarte geratzen den hilabetean bertara joan eta loteria erosi ahal izateko.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Tolosako Gerontologikoa

Tolosako Euskal Herria plaza-ko Gerontologikoan sei urtez egondako egoiliar baten senide bezala, zentro honen itxiera publikoki salatzea derrigortuta ikusten dut neure burua.

Administrazio publikoak, edozein dela ere (Udala, Al- dundia...) gure nagusiei zuzen- duriko zerbitzuen hobekun- tzan arduratuta beharko luke. Aldiz, haien bizitzako azkeneko urteetako bizi- kalitatea susta- tzeaz arduratuta baino, eskain- tzen dituzten zerbitzuen erren-

tabilitate ekonomikoari beste- rik ez diotela begiratzen ema- ten du.

Gure nagusietan ugaritzen diren Parkinsona, demenziak eta Alzheimerraren moduko gaixotasunak haien senideei, dagoeneko denak ditugun eguneroko eginbeharrak gehi- tzen zaizkienez, hauei eusten segitzeko modua aukera emango dien zerbitzuak ezin- bestekoak dira. Aldi berean, senideek beren nagusiekin eguneroko tratua mantentzeko erraztasuna izatea eskatzen da.

Gerontologikoaren itxierak, ordea, erbestera derrigortu

ditu bai nagusiak baita haien senideak ere.

Ardura duen administrazio- ari gure nagusien, euren mere- zimendu propioz, egungo bizi estilora egokitutako eta, batez ere, beti bizi izan direneko to- kian (haien herrian), kalitateko zerbitzu batzuk ez ote dituzten merezi galdetu beharko litzai- keela pentsatzen jarria naiz.

Honako azalpen hau, hasie- ran esan dudan moduan, da- goeneko itxia dagoen zentroan egondako nire amatxoren se- nide moduan egiten dut. Eta bertan aritutako langile guztiei eskerrak ematera derrigortu- ta ikusten dut neure burua: medi-

ku, erizain, auxiliari, zaintzaile, errezeptionista..., hil zen azken eguneraino izan zuen arre- ta bi- kainerengatik.

Langile, egoiliar eta senide- en artean zegoen harreman goxoa zentroa bera bezalaxe desagertu zen, dekretu bidez.

Non gelditu da Euskal Herria eta gainontzeko estatutarako eredugarria zen *itsasontzi entseina* zena? Adierazpen hau erabili izan duten berek urpe- ratu dute orain ontzia.

Egin duten atentatu publikoa gutxi izan ez balitz bezala, era- bili duten lotsagabekeria bera salatzea besterik ez zaigu gel- ditzen.

Errentagarritasun ekonomi- koa arrazoitzat dutenen aurre- an, eskubide batzuk defendat- zen saiatzeara utipikoa izanda ere, denok saiatu beharko ge- nuke gure nagusien gutxiene- ko duintasuna eta merezi du- ten harrera bermatuko ditue- naren alde.

Nik salatu egiten dut, eta hau irakurtzen duten guztioi gauza bera egitera animatzen zaituz- tet, Tolosan itxi ziguten Zentro Gerontologikoak zituen ezau- garri berberekin beste zentro bat herrira jar diezaguten es- katuz.

JOSE LUIS BUTRON ▶ TOLOSA

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Haimar Zubeldia omenduko du Urkamendi elkarteak

Frantziako Tour-eko sailkapenean lehen euskalduna izan denari egiten diote omen azken 20 urteotan



Zubeldia Peña Enara Euskaltel-Euskadiko aurkezpenean. IMANOL GARCIA

NOELIA LATABURU

Gaur, urtero bezala, Zizurkilgo Urkamendi Elkartek Frantzia-ko Tour-eko lehen euskalduna- ri omenaldia egingo dio. Aurt- en Haimar Zubeldia izango da omendua. 21:00etan egingo dute afaria Urkamendi elkar- tean bertan. Txirrindulariarekin batera, Ramon Mendiguru, Luis Zubero, Igor Gonzalez de Galdeano, Patxi Vila, Domini- que Arnaut, Bixente Iza, Txo- min Perurena, Marino Lejarre- ta, Iker Irazu eta Maria Altuna

gonbidatu dituzte Urkamendi- koek. Lizaso, Telleria eta Alaitz Sarasola bertsolariak eta Xa- pre eta Totxo trikitilariak ere bertan izango dira, eta aurkez- le lanetan Ion Zalduea ariko da.

Egun usadio bilakatu den omenaldia duela 20 urte hasi zuten elkarteko kideek. Hauek izan dira azken urteotako Tour- etako sailkapenetan lehen eus- kaldunak: Marino Lejarreta (5 aldiz), Migel Indurain (5 aldiz), Abraham Olano (3 aldiz), Txen- te Garcia (behin), Joseba Belo- ki (3 aldiz), Joane Somarriba (3

aldiz), Iker Camafio (behin) eta Haimar Zubeldia (2 aldiz).

Ez da, gainera, Haimar Zu- beldia txirrindulari laranjak gure eskualdera egingo duen lehen bisita. Izan ere, iaz, aben- duan, Irurako Enara tabernak Enara-Euskaltel Euskadi Peña sortu zuen. Aurkezpen ekital- dian usurbildarra izan zen, Migel Madariaga, Julian Gorospe, Gorka Gerrikagoitia, Joseba Zubeldia eta Markel Irizar talde- kideekin batera. Orduan, Haimar Zubeldiari egokitu zi- tzaion autografo gehien sina- tzea. «Pozgarria da peñak sor- tzea, atzean jendea dugun sei- nale», azaldu zuen Zubeldiak.

Zubeldia, 2006rako «prest»

Txirrindulariak, bere denbo- raldiaren gainera balorazioa egiterako orduan, bi lasterketa azpimarratzen ditu. «Frantzia-ko Tour-arekin eta Donostiako Klasikoarekin geratzen naiz, bietan ondo ibili naizelako». Datorren urterako asmoen be- rri ere eman du Usurbilkoak. «Tour oso ona egitea dut hel- buru, taldeak ere hori eskatu dit. Beraz, buru-belarri presta- tuko dut; beste lasterketak prestaketa bezala izango dira, eta taldekideak laguntzen saiatuko naiz, taldeak aurrera egin dezan».

GIZARTEA ▶

Elikadura norberak gestionatzeko

Kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko kooperatiba sortzeko asmoa dute

I. GARCIA

Tania Gomezek eta Itziar Ar- conadak hitzaldia eskainiko dute gaur, 20:30ean, Villabo- nako Gaztetxean. Elikadura ahal den gehiena autogestio- natzeko egitasmo bat aurkez- tuko dute, hau da, «kontsumi- tzen eta ekoizten denaren in- guruan erabakiak hartzea». Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko kooperatiba bat anto- latzea dute helburu. Egitas- moa aurkeztuko dutenek lur- sail bat dute Beizaman eta ekoizpen ekologikoa egiten ari dira. Lortzen duten pro- duktuak azoka eta dendetatik aparte bideratu nahi dituzte.

«Azokei duten garrantzia ken- du gabe, beste modu bateko harremana lortu nahi dugu kontsumitzaileekin», azaltzen dute. «Baratza denona izango da, denon artean erabakiko da zer landatu».

Kooperatiban parte hartzen duenak kuota bat ordaindu beharko du eta astero barazki otarra edo poltsa jasoko luke ordainetan. Egitasmoak fun- tzionatzeko partaide kopuru jakin bat beharko da. Bi neka- zariak beste aurkezpen bat- zuz egiteko asmoa dute Tolo- saldean. Hala ere, informazio gehiago nahi duenak beiza- mabaratzta@euskalerrria.org helbidera idatzi dezake.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAN

05

salgai

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako:

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak

hitza

ANOETA ▶ TXIRRINDULARITZA

Agirrezabala: «2004. urtean nuen ilusioa berreskuratu nahi dut»

Nicolas Mateos mugiezinen enpresak bultzatutako taldeak Joseba Agirrezabala txirrindularia fitxatu du urtebeterako

IMANOL GARCIA

Joseba Agirrezabala txirrindulari anoetarra fitxatu berri du Nicolas Mateos Taldeak urtebeterako. Txirrindularitza sortu berria den talde murtziarra Saunier Duval UCI Pro Tour mailako taldearen beheko taldea da, eta Continental mailan ariko da, hau da, profesionalek hirugarren kategorian.

Aurtengoa lehenbailehen ahaztu nahi du txirrindulari anoetar gazteak. Andalucía Paul Versan taldeak fitxatu zuen, baina azkenean ez zuen profesionaletan debutatu ahal izan. «Bere parte ez zuten bete», adierazi dio HITZARI Agirrezabalak. «Baina atzera begiratzea ez zait gustatzen. Orain 2004. urtean nuen ilusioa berreskuratu nahi dut». Izan ere, txirrindularitza dagokionez, ez du urte ona igaro anoetarrek, eta orain gogoz entrenatzea du helburu talde murtziarra emandako aukera aprobetxatzeko.

Oraindik ez daki Agirrezaba-



Abraham Olano eta Joseba Agirrezabala, txirrindulari gazteak Abraham Olano Peñaren omenaldia jaso zuen ekitaldian. HITZA

lak nolako egutegia izango duen: «Badakit taldeak Mallorcan-ko Itzulian eta Murtziako Itzulian parte hartzeko asmoa

duela, eta helburuetako bat dela Etorkizuneko Tour-ean lehiatzea, baina ez dakit ni zein lasterketetan izango naizen». Etorkizunera begira sortutako taldea da Nicolas Mateos mugiezinen enpresak bultzatutakoa. «Gazteekin lana egiteko asmoa agertu dute, esperientzia hartzen joateko eta bi urteren buruan-edo mailaz igotzeko», azaldu du Joseba Agirrezabalak.

Beste eskaintza batzuk bazituen ere, profesional mailan aritzeko aukera baliatu du Anoetako txirrindulariak. Hala ere, garbi du egun egiten ari den unibertsitate ikasketekin jarraituko duela.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Alkartasuna Biltokiko kideen bazkaria bihar

ERREDAKZIOA

Alkartasuna Biltokiko kideek, hamairugarren urtez, bazkaria egingo dute Anoetako Bodegon Bentaldetan, bihar, 13:30ean hasita. Aurretik,

12:30ean, meza izango dute. Biharko ospakizunez gain, gaur Villabonako Eresargi abesbatzaren bisita jasoko dute. Ordu erdiko emanaldia eskainiko diete Alkartasuna Biltokiko kideei.

ANOETA ▶ POLITIKA

Bide Eginez-en parte hartu dutenak, gustura

Anoetari eta Euskal Herriari buruz atera dituzte ondorioak ezker abertzaleko kideek



Bide Eginez-eko batzarkideek EHNA egiteko deia luzatu zuten. HITZA

ERREDAKZIOA

Anoetan burutu dituzte Batasunaren Bide Eginez prozesuaren txostenak eztabaidatzeko bi batzarrak. Bertan parte hartu dutenak ohar batean azaltzen dutenez, «oso positiboki baloratzen dugu herritarren partetik izan duen harrera eta parte-hartzea». Anoetari dagokionez, «bizi dugun apartheid egoera salatzeko jarraitzeaz gain, herrigintzan burutu beharreko lana azpimarratu zen», azaldu dute. «Horretarako, Anoetarrok Auzolanean herri plataformaren lan taldeak indartu


eta herritarren beharretan oinarrituriko erabaki eta ekimenak aurrera eramaten jarraitzearen garrantzia azpimarratu zen».

Euskal Herriari dagokionez, batetik, «egungo markoaren agorpenaren aurrean, mar txan dagoen bide honek herritar guztion eskubideen errespetuan oinarrituriko bakera eraman gaitzan, ezkertiar eta abertzale guztion batasuna eta indar metaketa ezinbestekoa da», ondorioztatu dute. Bestetik, «ezker abertzalearen eta Batasunaren helburu den Euskal Herri independente, sozialista eta euskalduna lortzeko, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala oinarritzko zutabe direla ikusi da, eta egunez egun jorratu behar diren garrantzia azpimarratzen dugu».

Nazio eraikuntzaren inguruan batzarkide guztiek bat egin dute naziotasun aitormena aldarrikatzen, eta anoetar orori deia luzatu diete bihar eta etzi EHNA tramitatu, eta gero erabiltzeko. 11:00etatik 14:00etara izango da tramitatzeko aukera, udaletxean. Hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro behar dira EHNA egiteko.

Gure Irratia Bidegurutzean

Sostengu kantaldia, 2005eko urriaren 29an iragan zena, orain DVDan eskuragarri



Parte-hartzaileak:

- Pili Pili taldea
- Maialen Errotabehere
- Anje Duhalde
- Eperra taldea (Niko eta Dominika Etxart, eta Robert Larrandaburu)
- Kattalin Indaburu
- Karolina Philips
- Unama taldea
- Xabaltx
- Amaren Alabak

AZAROAREN 25ean



+5,95€

GURE IRRATIA Gure Lokala

Euskaldunok behar dugun berria

HERNANI OKINDEGIA

s u l a b e
ogi egin berriena

Tel.: 943 55 40 50 • HERNANI

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ▶

Hitza hartuz

Bihar hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoen bigarren itzulia, eskualdeko hiru ordezkarien parte-hartzearekin: Amaia Agirre, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu

IÑIGO ASENSIO

Aurrera jarraituko du, bihar, urriaren 3an aurkeztu zuten 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Dagoeneko finalaurrekoen bigarren itzulia iritsi da, eta gauzak horrela, bihar eta etzi bi kanporaketa jokatuko dira. Lehen, Zumarraga-Urretxun, Ederrena pilotalekuan izango da, arratsaldeko seietan. Bigarrena, Berako Eztegara pilotalekuan izango da, igandean, arratsaldeko bostetan. Eta hirugarrena, azkenik, Donostiako Atano III. ean jokatu da, abenduaren 4an, arratsaldeko bostetan.

Orain artekoak ikusita, finalean izateko aukera handiak dituzten bost bertsolari aipa daitezke: Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Igor Elorza, Jon Maia eta Iruan bizi den Aitor Mendiluze. Seigarren sailkatua Amaia Agirre billabonatarra da, Mendiluzetik 24,5 puntutara dagoena, eta badirudi seigarren postu horrengatik borrokatu beharko dutela gainontzekoek. Agirrek berak aipatu duenez, «oraintxe 6. postua da jokoan dagoena, bertsolari askok lorbailezaketeko postu horretan amaitzea». Finalaurrekoetan lehiatuko diren hemezortzi bertsolariatik lehen seiak pasatuko dira finalera, eta bertan Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin batera ariko dira txapela lortzeko lehian.

Finala Barakaldoko BECen (Bilbao Exhibition Center) jokatu da, abenduaren 18an, eta bi saiotan banatuko da: goizekoa, hamaiketean, eta arratsaldekoa, lau eta erdietan. Sarrrerak honako leku hauetan daude salgai: Tolosako Cantabrico tabernan, Bilintz liburudendan, Villabonako Hiru-aldeta tabernan, Zizurkilgo Aurrera tabernan eta Leitzako



Arkaitz Estiballes, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Jon Martin, Xabier Paia. BERTSOZALE ELKARTEA

Maimur liburudendan. Sarre-raz gain autobus eta bazkarirako txartelak lortu nahi izanez gero, HIRZAK Tolosan duen egoitzara etor zaitezke.

Lehiaketaren gorabehereaz mintzatu da HIRZA Amaia Agirre eta Aitor Mendiluzerekin. Jexux Mari Irazurengana ere jo du, baina harekin hitz egitea ezinezkoa izan zaio.

Orain arteko lana. Amaia Agirrerentzat egindako lana gustura sentitzeko modukoa da: «Txapelketa hasi zenean nituen asmoen inguruan apustu egin izan banu, galdu egingo nukeen». Ez omen zuen inolaz egoera honetan egotea espero. Aitor Mendiluzerentzat saio bakarrean eginikoa neurtzea zaila da: «Dudarik gabe, emandako maila hobetzea da helburua orain».

Finalera begira. Billabonatarren ustez egoera asko aldatuko da bihar. Gauzak horrela bukatuta, bera finalean legoke, baina ezin fida daitekeela dio. 6. postua jokoan egonik zortzi bat bertsolarik aukerak dauz-

katela uste du. «Iruzak hautagai izaten jarraitzen du, bada-kigulako izugarritzko saioak egiteko gai dela». Agirrek Urretxun «txura ona» ematea du helburu, eta finalean egoteagatik ez gehiegi kezkatzea. Orain arte eginiko maila mantentzea ondo legokela dio. Mendiluzeren ustez, duen abantaila ez da nahikoa lasaitzeko. Bertsolari onak daudela eta oraindik edozer gerta daitekeela dio hark: «Behin finalean gauzak beste modu batera izango dira. Ordurarte postuei gehiegi erreparatzen zaio, eta behin bertan egotea lortuta, bertsotan egiteko aukera dago, beste ezer buruan izan gabe».

Eskualdekoen aukerak. Mendiluzek aukera asko dituela irizten du Agirrek, Gazteizen saio bikaina egin zuela baina oraindik hobe ere egin dezakeela: «Finalean pentsatzen jarrita ere kontuan hartzeko moduko bertsolaria da». Horrez gain, Irazurekin ere kontuz ibili beharko dela uste du. «Berak oso saio ona egin beharko luke finalean egoteko, eta garbi

dago egin dezakeela, baina beste guztiok nahiko kaxkarrak egin beharko genuke». Mendiluze ere ados dago horretan. Aurrekoan zorte txarra izan zuen arren, oraindik egoerari buelta emateko moduan dela dio: «Guztiok dakigu zertarako gai den Irazu, inork ez dezala pentsa aukerarik gabe dagoenik».

Faborito nagusia. «Maialen Lujanbio da niretzat faborito nagusia. Beste distira bat erakusten ari da», dio Amaia Agirrek. Hala ere, bertsolari billabonatarren ustez, saio bakarrean aritu behar izateak bere aurka egin dezake, ideia aldetik freskotasan gehien duena izan arren. Aitor Mendiluzek, berriz, ez ditu gauzak batere argi ikusten. «Denok dakigu Andoni nor den eta zer nolako mailan aritu daitekeen. Idurrek Hendaian erakutsi zuen maila onenean datorrela txapelketera, eta Idurreren maila onena oso maila altua da», aipatu du. Horrez gain, Maialen Lujanbio ere kontuan hartu beharkekoa dela dio Mendiluzek, eta gai-

SAILKAPENA ▶

Finalaurrekoen lehenengo itzulia pasatuta, honako hau da sailkapen orokorra:

Izena	Puntuak
1. Amets Arzallus	788,5
2. Unai Iturriaga	774,0
3. Igor Elorza	772,5
4. Jon Maia	769,0
5. Aitor Mendiluze	763,0
6. Amaia Agirre	739,5
7. Aitor Sarriegi	735,0
8. Jokin Uranga	731,5
9. Xabier Paia	728,5
10. Sustrai Colina	725,5
11. Arkaitz Goikoetxea	724,0
12. Fredi Paia	719,0
13. Jon Martin	719,0
14. Jexux Mari Irazu	717,0
15. Arkaitz Estiballes	712,0
16. Ekaitz Goikoetxea	712,0
17. Iñigo Manzisidor	689,0
18. Etxahun Lekue	680,5

nontzeko guztiak ikusita faborito bat aipatzea oso zaila dela aitortu du.

Prestaketa. Agirrek dioenez, lanik handiena Lekunberrirako egin zuen. Bertan aritzeko hilaibete luzez aritu zen, txapelketa buruan zuela, gutzia prestatzen. Ondoren, Hendaiarako lan gutxiago egin zuela dio, eta larunbaterako oraindik gutxiago; burua fresko eraman nahi duela eta horrengatik azken aste hau iritsi den arte gutzia ahazten saiatu dela. «Azken egun hauetan berriro dator tentsioa, baina nahiago dut lehiaketan gehiegi ez pentsatu; luze samarra egiten ari zait hau gutzia». Mendiluzek, «txapelketa guztietan bezala», nahi lukeen adina prestatu gabe iritsiko dela dio. Mentalizazio aldetik egin duela lana, lasaitasuna mantendu eta estiloa definitu nahiean, baina ez teknikoki.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GAZTELU ▶

Herriko taberna
ustiatzeko
izen-ematea

Gazteluko Udalak jakinarazi du, onartutako pleguaren arabera, Udalaren eraikinean kokaturiko taberna zerbitzua ustiatu ahal izateko izena eman daitekeela. Pleguak eskuratu ahal izateko udalereko bulegoetara joan behar da; azken eguna, datoren astelehena, hilaren 28a izango da.

ALEGIA ▶

ESAITen eta kirol
ordezkarien
agerraldia bihar

ESAITek antolatuta, bihar Tolosaldeko kirol elkarteek eta ESAITeko ordezkariak agerraldia eta sinadura bilketa egingo dute Alegiako kiroldegian. Eskualdeko kirol elkartei bertan azaldu eta ekimen honi atxikimendua emateko deia egiten die ESAITek. Hitzordua 12:00etan izango da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroizko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinikak 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIZARTEA

Hastear da Misioetako
Merkatu Txikiko
material bilketa

Hilaren 28tik abenduaren 9ra egingo da bilketa; India, Ekuador eta Honduras laguntzeko baliatuko da aurten

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarratik Misio taldeak antolatuta, urtero legez, abenduaren 11tik 18ra bitartean Misioetako Merkatu Txikia egingo da Ibarrran parrokiako lokaletan. Aurrez, ordea, astelehenean hasita, material bilketa hasiko dira, eta abenduaren 9ra bitarteko jardungo dute horretan.

Hala, elkarteak jakinaren gainean jarri ditu herriko denak ekimen horretan parte har dezaten, euren materiala merkatu txikirako emanez, eta hurrengo astean hasiko dira haiek utzitakoa biltzen.

Baina, dendariez gain, herri-tarrek ere badute laguntzeko aukera elkarte lokaletan pitxiak, jostailuak, arropa eta bestelakoak eramanez. Horretarako, bilketak iraungo duen egunetan, 17:30etik 20:30era zabalik izango dituzte San Bartolome plazan kokaturiko lokalaren ateak.

Ibarratik Misio taldeak herri-tarrek parte hartzeri animatzen ditu, horrela, dituzten



Ekuador, India eta Honduras laguntzea izango du helburu. HITZA

proiektuak gauzatzeko aukera izango baitute.

India, Ekuador eta Honduras

Lau proiektuekin ari da egun lanean elkarteak. Mumbai-n (India), kalean bizi den jendearentzat bizilekuak eraikitzeko asmoa du, eta Gujerrat (India) deituriko herri txikian, batetik, barnetegi bat eraiki nahi dute eta, bestetik, putzu bat egin

nahi dute, herritarrek urik gabe baitaude. Santa Rosan (Ekuador) dagoen aroztegia handitzeko helburua ere badute. Aroztegi hau elkarteko proiektu baten laguntzaz eraikia izan zen. Azkenik, laugarren proiektua, Suyapan (Honduras) kokatzen da; hor, orain hirurte hasi zutenarekin jarraitu nahi dute, hau da, bertan etxeak eraikitzeko bideratuko da laguntza.

BERASTEGI ▶ KULTURA

Askotariko ekitaldiak beterik dator
Kultur Astearen bigarren asteburua

Igandeko azoka bereziarekin amaituko da aurtengoa

I. TERRADILLOS

Ekitaldiak beterik egitaraua izango dute berastegiaren gaurtik igandera. Gaur gauean, hitzaldi interesgarria eskainiko du Kike Amonarriz soziologoak egungo gazteen euskararen inguruan. Biharkoan, berriz, gaztetxoenei zuzenduriko ekitaldiak izango dira, pailazoekin, txokolatadarekin eta euskarazko film batekin. Eta, igandean, aurtengo Kultur Asteari amaiera emateko, Berastegiko produktuen azoka berezia eta hainbat lehiaketa izango dira.

EGITARAUA ▶

EGUNERO

Urepelelartean ikusgai argazki rally-ko argazkiak.

GAUR

21:00. *Gazteen euskara gaur egungo Euskal Herrian* hitzaldia Kike Amonarrizen eskutik eskolako gimnasioan.

BIHAR

17:00. *Xaltoa show berria* prestatzen ikusizuna eskolako jolastokian.

Ondoren. Txokolatada.

22:00. Euskarazko filma erabilpen anitzeko gelan.

ETZI

11:00. Gazta lehiaketa eta Berastegiko produktu eta eskulanak eskuragai pilotalekuan izango den azokan.

12:30. Gazta, postu eta argazki rally-ko irabazleen sari banaketa pilotalekuan.

18:00. Lehiaketan parte hartutako gazten dastaketa taloa, ardoa eta sagardoarekin.

IBARRA ▶

Txotxongilo
emanaldia
bihar goizean
Kultur Etxean

La Pareja antzerki taldearen 'Panchito Mandefua' ikusizuna izango da ikusgai

ERREDAKZIOA

Bihar, 11:30ean, Ibarrrako Benito Izagirre kultur etxean, txotxongilo saio bereziaz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek, Venezuelako La Pareja antzerki taldearen *Panchito Mandefua*, hain zuzen. Panchito, protagonista, haur langile bat da, kaletarra, eta bertan sufririkatu dituen familia egokituetaokak diren haurrek bizi ez dituzten gorabeherak eta esperientziak. Hala, mota guztietako pertsonaiei aurre egin beharko die, eta bere izaera agertuko da ondorio logiko gisa.

Daniel di Maurok zuzentzen duen txotxongiloentzako lan hau Jose Rafael Pocaterra idazle karabobetar ospetsuaren *Panchito Mandefua* *Jesus haurtxoarekin afaldu zuen eguna* izeneko ipuinean oinarrituta idatzia izan zen. Bestalde, La Pareja txotxongilo antzerki taldea, 1951. urtean sortu zuten Eduardo eta Hector di Maurok eta Laura de Rokhak eta Raquel Venturik. Kordoban (Argentina). 1986an, Eduardo di Mauro, Guanareko Tempo antzerkiaren eratzaleak, talde horrekin Hego Ameriketara zehar bidaiatu bat hain eta Daniel di Mauro bere semearekin zion La Pareja antzerkiaren etorkizuna gidatzeko ardura.

1990etik Conac-en Kulturaren Kontseilu Nazionalaren laguntza jaso zuen eta horri esker helburu sozial argiko programa multzo bat garatu ahal izan du. 2002ko urria eta azaroa artean, Javier Villafañe Txotxongiloen III. Topaketa Nazionalan, Venezuelako Valentzia hiriko III. Arte Jaialdian, Txotxongiloen VI. Iberoamerikar Antzerki Biurtekoan, Bartzelonan Ekialdeko XXVII. Nazioarteko Jaialdian eta Venezuelako garatzen den Mendebaldeko XX. Antzerki Jaialdian hartu du parte, besteak beste. La Pareja antzerki taldearen egungo zuzendaria Daniel di Mauro da, eta Estrella Melaverekin batera dihardu lanean.

LEITZA ▶ AISIA

Diskoteka ttikia dute pilotalekuan umeeek

Umeeek dantzaldia izanen dute pilotalekuan; Ateka Beltzan logoen erakusketa ikusgai

J. ASTIBIA

Asteburu honetan ere bada zertan denbora igarota, han eta hemen iragarritako dauden aukerei erreparatu.

Bihar berean, Leitzako Kultur Taldearen eskutik, umeentzat diskoteka ttikia muntatuko dute Amazabal pilotalekuan, arratsalde-iluntze aldera. 18:00etan hasi eta hiru bat ordu ingurutan, «egun-egungo doinuak, betikoak, atzerrikoak, bertakoak, martxosagoak, motelagoak... pintxatuko ditugure DJ bereziak», jakinarazi zuten: «Bertaraten diren umeentzat sekulako dantzaldia» prestatuko omen dute. Gainera, «koloretako argiak, lameda... erabat girotuko dugun», adierazi zuten. Bestalde, «bertaraten diren festazaleek nahi izanez gero», ziotenez, «karaokean» parte hartzeko aukera ere izanen omen dute. Tikiene-

tatik kozkorrenetara, «dantzarako gogoak duten ume nahiz gaztetxo guztiei» egin die diskoteka ttikira joateko deia.

Logoen erakusketa

Bestalde, garai beretsuan, 17:00ak aldera, baina Ateka Beltzan, logo erakusketa eginen dute eta baita aukeraketa ere. Aurreko egunetan, «Ateka-beltz zutik» txertatuta izatea baldintza bakarrarekin, logoak aurkezteko beta izan den moduan, bihar aurkeztutako lanen erakusketa eginen omen dute, bere garaian jakitera eman zuten. Era berean, bertaraten diren ikusleek beren iritzia eman ahal izanen dute, bakoitzak gustuko denari bozka emanez.

Horren arabera, guztien artean erabakiko dute zein izanen den aurrerantzean Ateka Beltzeko irudia.

LEITZA ▶

Oraingoan, Kim Ki-duk-en 'Hierro 3' filma

Aurtengo Donostiako Zinemaldian Fipresci Saria eskuratu du zuzendari honek



Hierro 3-ren kartela. HITZA

J. ASTIBIA

Gaur 22:30ean eta etzi, igandea, 19:30ean, *Hierro 3* filma ikusteko aukera izanen da Leitzako zinema aretoan. Golfean gutxien erabiltzen den makila omen da 3.a, eta horrekin paralelismoa eginez, historio honetan Tae-suk eskazalearen (Jae Hee aktorea) bizimodua du kontagai: jabeak kanpoan direla bada-kien etxebizitzetan sartzen da, eta kalterik egin gabe haietan bizitzen da epe motzetan. Ustekabea, etxe handi batean, Sunhwa emakume gaztearekin (Lee Seung-yeon aktorea) topo egintzen du.

Kim Ki-duk korearrak zuzendu, muntatu eta gidioa ere berak egin zuen film honetan. Oso ezaguna da, hainbat sari eskuratu ditu, azkena Donostiako Zinemaldian, prentsak eman ohi duen Kritika Saria, Fipresci delakoa, baita Venecian (Italia) ere, eta Valladoliden (Espainia) Urrezko Gari Alea jaso zuen, sari batzuk aipatze arren.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zerbitzu anitza. Egutero, eguneko azken berriak plazaratzen dira bertan, *Azken ordukoak, Eguneko irudia, Datua, Esanak...* moduko ataletan. Gainera, agenda, eguraldia, hemerroteka, agurrak, farmaziak... baliagarri diren zerbitzuak ere hor daude.

LEITZA ▶ ARETO FUTBOLA



Abruzatezaina penalti bat gelditzen, arxiboko irudian. JAIONE ASTIBIA

Altsasu eta Beti Onak, biharko arerio

Helduek han eta gazteek hemen, 15:30ean dira bi futbol partiduak

JAIONE ASTIBIA

Berriz ere jokoari ekiteko prest dira Aurrerako futbolariak. Bai helduen taldeak bai gazteek, biek hala biek, bihar dituzte partiduak.

Aurrerak, helduen taldeak, aurreko asteburuan ez zuen jokatu behar izan, Nafarroako Kopako jardunaldia medio; baina oraingoan berriz ere normaltasunera itzuliko dira. Altsasu izanen dute aurrez aurre 11. jardunaldi honetan eta kanpoan, Altsasun, jokatu dute Irujo eta Arrizuriaren aginduetara.

Aurrerak 17 puntu ditu, eta sailkapeneko goiko postuetan dago; Altsasu, aldiz, taulako beheko postuetan dagoen taldea da. Edozein moduz, haiek etxean jokatzeko dute eta ho-

rrek ematen dien abantailaz baliatzen saiatuko dira, baina leitzarrek martxa ona daramate eta partidua aurrera ateratzeko asmoarekin joanen dira Burundarantz.

Etxean jokatu dutenak gazteak izanen dira. Beti Onak taldea izanen dute aurkari honetakoan, Atarrabiako taldea. Sailkapenari erreparatu, bi taldeak elkarren jarraian daude, 8 punturekin bata, 6 punturekin bestea, justu leku bat gorago daude Iruferrikoak, eta lehia polita izan daiteke Arkikilen ikusgai. Gainera, aipatzekoa ere bada aurreko jardunaldian Aurrera gazteak Larraonako taldeari irabazi egin ziola bere zelaian, 0-2koarekin. Taldea pixkanaka indartzen ari den seinaleztat joz, oraingoan ere bide bera egin dezake.

EKONOMIA ▶

Langileentzat ikastaroa ekonomia sozialaz

Lesakan eginen dute ikastaroa 28tik aurrera; oraindik badago lekua izena emateko

J. ASTIBIA

Cederna-Garalur garapen agentziak jakitera eman duenez, «ekonomia sozialean, jendartearen parte-hartzea» gai duen ikastaroa egiteko dute astelehenean aurrera Lesakan, eta «oraindik leku batzuk» badaudela eta, deialdia Leitzaldera ere zabaltzea erabaki dute eta interesa dutenentzat telefono zenbaki bat jarri dute eskura: 948 29 12 71, ANELena (ikastaroa eman duen Nafarroako Enpresa Laboralen Elkartearena).

Aditza eman dutenez, ikastaroa «langileei edo azkeneko urte hauetan kontratua izan dutenentzat» bideratutakoa da eta ekonomia sozialean du ardatz, hots «kapital sozialaren gehiengo bertako langileena den enpresetan parte hartze-ri buruzkoa», jakin izan ahal denez. Horren harira, «eko-

mia sozialeko enpresaren ezaugarriak, enpresaren esanahi modernoa; funtzionamenduari dagokionez alde juridiko eta laborala, bazkideen betebeharrak eta eskubideak, erabakiguneak, parte-hartzea eta autogestioa; kontabilitate nozioak; gestiorako eta kontrolerako oinarriak eta pertsonak ekonomia sozialeko enpresetan» moduko gaiak landuko dituzte.

Guztira, launa orduko bost saiotan banatuko dute ikastaroa: hilaren 28an izango da aurrenekoa, abenduaren 5ean, 12an, 19an, eta 21ean azkena. 09:30etik 13:30era izanen dira, hain zuzen ere, Cederna-Garalur garapen agentziak berak Lesakako Alkaia industrialdean duen enpresa zentroan, hain zuzen ere.

Horrelako ekimenekin, besteak beste, eskualdearen garapena bultzatzea dute helburu.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Audifonoa. Audifono bat galdu da Tolosako San Frantzisko inguruan. 943 65 23 35.

SALGAI

Space. Renault Space. Motorra DCI 2200. 2001ekoa. Telefono zenbakia: 649 89 98 03.

Avensis. Toyota Avensis monobolumena. 7 plaza. 2.2, 116 cv, 16 v. 4 urte, extra askorekin. Inteseratuak deitu telefono zenbaki honetara: 629 41 16 53.

Motorra. KTM EXC 250 endurokoa. 2005ekoa. Matrikulatua. Egoera onean. Telefono zenbakia: 618 25 49 60.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 25a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. EHNA tramitatzeko aukera udaltxean, 11:00etatik 14:00etara, bihar eta etzi.
Ibarra. Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra, Batasunak deituta. Bihar, 10:00etatik 13:00etara, Subegi kultur elkartearen. Ildo politikoaren eztabaida eta batasuna aurrera.
Tolosa. Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra, Batasunak deituta. Bihar, 10:30ean, 10:30ean, Kultur Etxean. Ildo politikoaren eztabaida eta batasuna aurrera.
Tolosa. Otoitzaldia. 10:30ean, Santa Maria parrokiaren.
Tolosaldea eta Leitzaldea. Etxerat-ek deituta, euskal preso politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzeak ohiko lekuetan: 19:30ean, Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarren eta Tolosan; 20:00etan, Adunan, Asteasun, Ikaztegiaren, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilen.
Villabona. Aizkardi Mendi Elkarrekin antolatutako 22. Mendi Astearen baitan, etzi ibilaldia eta bazkaria egingo dute. Hitzordua Olaederra kirolegian, 08:30ean.

HITZALDIAK

Berastegi. Gazteen euskara gaur egungo Euskal Herrian. Kike Amonarriren eskutik. 21:00etan, eskolako gimnasioan. Kultur Astearen.

MUSIKA

Tolosa. Lehendakaris muertos eta Ezinean. 22:30ean, Bonberenean.

TITIRIJAI 05

Tolosa. Kultur Etxean, Venezuelako Titeres La Pareja, *Panchito Mandefua* lanarekin, 17:30ean. Beotibar pilotalekuan, Txinako Guandong



Txinara begira da jada Titirijai 2005

TOLOSA ▶ Bihar hasiko da Titirijai 2005. 23. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia Txinari begiratu dio oraingoan. Abenduaren 4ra arte, egunero izango da zertaz gozatua: 8 herrialdetako 20 konpainiek 21 ikuskizun ezberdinen 143 antzezpen eskainiko dituzte non-nahi. HITZA

ppupet theatre taldea *Lignango hagaxoen magia* lanarekin, 20:00etan.
Ibarra. La Pareja antzerki taldearen *Panchito Mandefua* ikuskizuna. Bihar, 11:30ean, Kultur Etxean.

ZINEMA

Leitza. Kim Ki-duk zuzendariaren *Hierro 3* filma, gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean, zinema aretoan.
Villabona. Montxo Armendariz zuzendariaren *Obaba* filma ikusteko aukera Gurean. Gaur, 22:30ean, euskaraz; bihar, 19:30ean euskaraz, eta 22:30ean gazteleraz; etzi, 19:30ean gazteleraz, eta 22:30ean euskaraz; astelehenean, 19:30ean euskaraz, eta 22:30ean gazteleraz.

KIROLAK

GAUR

Areto futbol.

▶ Irizabal anaiak-Transportes Lakunza (Liga Autonomikoa). 21:30, Sahatsaga.
▶ Laskorain-Power Rangers (3. Maila B). 20:45, Usabal.

BIHAR

Areto futbol.

▶ Ordizia-Tinta Billabona (Emakumezkoen Liga). 18:00, Majori.
▶ Laskorain-Altamira Bar Txutxi (Nazional B Maila). 18:00, Usabal.
▶ Soloarte-Lauburu Ibarra. (1. Maila A). 16:15, Belabieta.
▶ Cash Converters-Ayete (2. Maila). 18:30, Olaederra.
▶ Eskolapioak-Gure Txokoa (2. Maila). 17:15, Eskolapioak.
▶ Denak taberna-At-ko Ondarroa (3. Maila A). 16:30, Belabieta.
▶ Tecnum-Laskorain (3. Maila A). 21:00, Tecnum.
▶ Anoetako Gazte Asanblada-

Tolargi (3. Maila B). 16:30, Uzturpe.
▶ Hirukide Eskolapioak-Detsche Schule A (Jubenilen Liga). 16:00, Eskolapioak.

Eskubaloia.

▶ Hegalde Auto-Tolosa (Lurraldekako 2. Maila). 11:15, Bikuña.
▶ Leizaran-Tolosa (Jubenilen Maila). 11:15, Alluralde.

Futbola.

▶ Tolosa-Aurrera Vitoria (3. Maila). 16:30, Berazubi.
▶ Behobia-Danena (Lurraldekako 1. Maila). 15:30, Gal.
▶ Amaroz-Intxurre (Lurraldekako 2. Maila). 15:30, Usabal.
▶ Usurbil-Tolosa (Nesken Liga). 15:30, Zubieta.
▶ Billabona-Tolosa (Jub. 1. Maila). 15:30, Arratzain.
▶ Intxurre-Sporting Herrera B (Jubenilen 1. Maila). 15:30, Elorri.

Futbol 7.

▶ Ibarra Kafe Antzokia (1. Maila A). 19:00, Zubieta 1.

Zesta-punta.

▶ Zumaia-Beotibar 1 (Mujika-Telleria; kadeteen maila). 12:00, Odieta-Zumaia.

ETZI

Futbola.

▶ Tolosa-Indartsu (Jubenilen Nazional Maila). 16:30, Berazubi.
▶ Munibe-Tolosa B (Lurrald. 2. Maila). 14:15, Berio.

Futbol 7.

▶ Easo Motor-Continental Industrias (1. Maila A). 11:30, Urnieta 1.
▶ Caravanas Tolosa-Garbera sagardotegia (3. Maila D). 11:00, Beasain 2.

Zesta-punta.

▶ Donostia Jai Alai 2-Beotibar 2 (Izagirre-Bildarratz; kadeteen maila). 12:00, Carmelo Balda-Donostia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotza* magazina: 11:00etan, eguraldia Jose Landarekin, HITZAren errepasoa, Argia-eren errepasoa, albisteak, oharrak...; agenda, iritziak, elkarrizketak, albisteak...; lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotza* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Hala Bedi irriariaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Arkako Show* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maddi (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak eta muku handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Andoni Artola (Anoeta). Gaur 3 urte. Zorionak aita, ama eta Enekoen partetik.



ZORIONAK
Joxe Mari Balerdi (Lizartza). Urte askoan eta muku bat, attona! Ebeko sorginaren partez.



URTE ASKOAN
Iñaxi Agirrezabala (Ugarte). Gaur 83 urte. Ondo pasa seme-alaba, biloba eta birloben partetik.



URTE ASKOAN
Nagore Zabala Luluaga (Ibarra). Gaur 10 urte. Zorionak aita, ama eta Gorkaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila eskert!